



ABALTZISKETA

2017KO OTSAILAREN 9KO OHIKO BILKURARAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Aritz Garmendia. Zinegotzia

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Kepa Gorostidi. Zinegotzia

Mikel Senperena. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRRENDA

1. 2016-12-15 Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
2. Korrikaren diru laguntza eskaera aztertu eta dagokiona erabaki.
3. Giltzarriaren manifestua aztertu eta dagokiona erabaki.
4. 2017/01 H.L. (J.I.E.I Jaunarena) bizitza berri baten habilitazioa eskuratzeko banaketa horizontala onartzea.
5. 2017/02 H.L.(J.I.G.S. Jaunarena) etxearen handipena portxea egiteko onartzea.
6. 2017/03 H.L. (A.Z.Z. andrearena) ahuntzentzako estalpea basoan egitea onartzea.
7. Alkatearen ebazpenak jakinarazi eta berronesteak:
 - 2017/01. Abenduko fakturak.
 - 2017/02. Larraitzen telefonikak burutu nahi duen obrari baimena onartzea.
 - 2017/03. Basalan Arrospideri bi bide erabiltzeko baimena onartzea.
 - 2017/04. DENON ONDARE egitasmoari 300 euroko laguntza onartzea.
 - 2017/05. Urtarrileko fakturak onartzea.
8. Txalburu eskolako guraso elkartearen dirulaguntza eskaera aztertu eta dagokiona erabaki.



ABALTZISKETA

9. Trakzio mekanikozko ibilgailuaren zergan, 2015eko abenduaren 28an onartutako aldaketa kontutan hartu, eta 2017ko kuotan aplikatzea eskaera aztertu eta dagokiona erabaki.
10. Galderak eta eskaerak.

1- 2016-12-15KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-12-15eko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

2- KORRIKAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Tolosaldeko korrika batzordeak sinatuta, 20. korrika BATZUK lelopean diru-laguntza eskaera zuzendu dute Udal honetara.

Korrikaren helburua, euskara berreskuratzea eta Euskal Herria berreuskalduntzea da. Guztiaren antolatzailea AEK da.

AEK helduen euskalduntze alfabetatze aritzen direnak, Euskal Herrian zehar banatuak daude eta batz bestea 500 irakasle baino gehiago direla 100 gau-eskola eta euskaltegietan.

Eta eskaeraren xedea, kilometroari 600,00 eurotako laguntza ematea da eta guztira 2.500 kilometro egitea aurreikusten da.

Abaltzisketako udalerritik, apirilaren 8an pasako da goizeko 06:15ak inguruan, gutxi gora behera.

Eskaeraren aurrean, AHO BATEZ ERABAKI DA:

BAT.- BATZUK lelopean, 20. korrikari, 300 eurotako laguntza ematea, hau da kilometro erdi bat.



ABALTZISKETA

BI.- Herriko norbaiti kilometro erdian lekukoa eramateko aukera eskaintzea.

3- GILTZARRIAREN MANIFESTUA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Tolosaldeko Giltzarriaren manifestua aurkeztu da onarpena emateko.

Idazkariak jakinarazten du, manifestu hau ez duela inork sinatzen.

Manifestuaren testua ondorengo da:

“Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure esku dagoen enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatuz egikaritzea pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gainera, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarraz, eskualdeko biztanlearen iritzia babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkari bat duen heinean, begi onez ikusten du martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitzeko ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri. Europan martxan dabilen trenaren Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematea:

Nahi ahal duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batetan.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!”



ABALTZISKETA

Mahaikideek AHOBATEZ ERABAKI DUTE:

Bat.- Manifestuari onarpena ematea.

4- 2017/01 H.L. (J.I.E.I JAUNARENA) BIZITZA BERRI BATEN HABILITAZIOA ESKURATZEKO BANAKETA HORIZONTALA ONARTZEA.

Zelain azpi baserria berreraikitze eta kokagune aldatzeko baimenak, 2008ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartu ziren.

Zelain azpi bererreraikitze lanen amaiera eta lehen okupazio eta bizigarritasun baimena eskatu ziren eta Udalak 2012ko urriaren 2ko Osoko Bilkuran honako erabakia hartu zuen:

- Lehen okupazio eta bizigarritasun baimena eraikinaren behe solairuan bakarrik izango zela.
- Eta lehen solairuan edo teilatupean ez du bizigarritasunik eta gainera lehen solairura edo teilatupera ezingo da igo gaur egun dagoen bezala.

Zelain azpi etxearen jabeak, bizitza bat habilitatua du eta beste bizitza bat habilitatu ahal izateko eta banaketa egiteko behar duen baimena eskatzen du, horretarako legeztatze txostena aurkeztuaz.

Udal honetako Plan Orokorrak 66. artikuluko 5 puntuan, Abaltzisketako eraikinetan, gehienez 4 bizitza ezartzea baimentzen du, horretarako solairu estalgarria 600 m² etakoa izan behar duelarik. Eta bizitza bakoitzak gutxienez 150 m²etako eraikigarritasuna behar du. Eta, baldintza hau aplikatzen irten daitezkeen bizitzak onartuko dira beti ere gehienez 4 bizitza kopurua izanik.

Beste txosten teknikorik ez dago.

Beraz, Zelain azpi etxearen jabeak aurkeztu duen eskaera onargarria da, aurkeztu duen txostenean honako datu hauek agertzen direlako:



ABALTZISKETA

| Oina | Azalera Erabilgarria | A Bizitza | BBizitza | Amankomuna |
|----------------|-----------------------------|----------------------------|-----------------------------|----------------------------|
| Sotoa | 214,24 m ² | 115,57 m ² | 99,13 m ² | 0 m ² |
| Behea | 232,35 m ² | 210,56 m ² | 8,88 m ² | 12,91m ² |
| Teilatupea | 181,30 m ² | 0,00 m ² | 181,30 m ² | 0 m ² |
| GUZTIRA | 628,35 m² | 326,13m² | 289,31 m² | 12,91 m² |

Aurkeztu den txostenean ere garbi adierazten da, gaur eguneko teilatupeko oineko lanak egin gabe daudela eta obrak burutzeko aurreikuspenik ez dagoela.

Eta eskaera honen helburu bakarra, Zelain azpi etxearen banaketa egitea da, bertan bi bizitza eratuaz.

Mahaikideek, AHOBATEZ ERABAKI DUTE:

LEHENA.- Eskatzaileari, Zelain azpi etxean bizitza berria ahalbideratzeko banaketa egitea onartzea, ondorengo datueen arabera:

| Oina | Azalera Erabilgarria | A Bizitza | BBizitza | Amankomuna |
|----------------|-----------------------------|----------------------------|-----------------------------|----------------------------|
| Sotoa | 214,24 m ² | 115,57 m ² | 99,13 m ² | 0 m ² |
| Behea | 232,35 m ² | 210,56 m ² | 8,88 m ² | 12,91m ² |
| Teilatupea | 181,30 m ² | 0,00 m ² | 181,30m ² | 0 m ² |
| GUZTIRA | 628,35 m² | 326,13m² | 289,31 m² | 12,91 m² |

BIGARRENA.- Bizitza hauetatik, A bizitzak, behe oinean kokatuak bizigarritasun eta lehen okupazio baimena duela. Eta bizitza berria eratu behar denak, hau da B bizitzak, ez du lehen okupazio eta bizigarritasun baimenik.

HIRUGARRENA.- B bizitzaren lehen okupazio eta bizigarritasuna eskuratzeko ezinbestekoa izango da, dagokion obra proiektua aurkeztea eta udal baimena eskatzea.

LAUGARRENA.- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.



ABALTZISKETA

5- 2017/02 H.L. (J.I.G.S. JAUNARENA) ETXEAREN HANDIPENA PORTXEA EGITEKO ONARTZEA.

Oskarbi etxearen hegoaldean 3metro luze eta 5,5 metroko zabalera duen portxea eta L itxurako irudia emanaz, etxearen mendebaldean 3 metro luze eta 4 metro zabalera duen portxea egin nahi du. Handikuntza osoa , 14,25 m² etakoa da (3x5,5 +4x3/2).

Ingurunean, bere jabetzako lursaila dago.

Etxearen neurria, 8x14,50 metro dira, guztira 116 m² oinean. Honen %20 baino gutxiagoko handikuntza egiten du.

Esan behar da, 1996ko urriaren 31ko Osoko Bilkuran, portxea egiteko baimena onartu zitzaioela, portxe osoa, hegoaldean egiteko asmoa zuelarik.

Hirigintza aldetik ez dago inolako eragozpenik, baina baimen honek ez du salbu uzten beste erakundeetatik behar duen baimena eskuratzetik.

Egin behar den lanen aurrekonturik ez da aurkeztu.

Txosten teknikorik ez dago.

Mahaikideek AHOBATEZ ERABAKI DUTE:

BAT.- Portxea egiteko baimena onartzea aipatutako neurrietan.

BI.- Portxearen exekuzioak eskatzen badu, dagokion beste erakundeetako baimena eskuratzeko eskatzailearen ardura da.

HIRU.- Lanaren aurrekontua aurkeztu eta dagokion zerga likidatzea.

LAU.- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.



ABALTZISKETA

6- 2017/03 H.L. (A.Z.Z. ANDREARENA) AHUNTZENTZAKO ESTALPEA BASOAN EGITEA ONARTZEA.

Esakera honen erabakia , hurrengo bilkurarako geratu da .

7- ALKATEAREN EBAZPENAK JAKINARAZI ETA BERRONESTEA:

Idazkariak jakinarazi du, Alkateak, aurreko bilkuratik hasi eta gaurko egun arte eman dituen ebazpenak ondorengoak izan direla:

- 2017/01. abenduko fakturak onartzea
- 2017/02. larraitzen telefonikak burutu nahi duen obrari baimena onartzea.
- 2017/03. Basalan Arrospideri bi bide erabiltzeko baimena onartzea.
- 2017/04. Denon ondare egitasmoari 300 euroko laguntza onartzea.
- 2017/05. urtarrileko fakturak onartzea.

8- TXALBURU ESKOLAKO GURASO ELKARTEAREN DIRULAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Abaltzisketako Txalburu eskolako guraso elkarteak, 2016/2017 ikasturtean zehar burutu eta burutzen ari den ekintzen inguruko laguntza eskaera luzatu duela jakitera eman da.

Guraso elkarteak aurkeztu dituen ekintzak honako hauek dira:

| | |
|--|----------|
| • Igeriketa ikastaroa | 957,35 |
| • Ikastarorako garraioa | 1.455,00 |
| • Larraulen egonaldia eta autobusa.... | 1.092,00 |
| • Ekogunera autobus eta sarrera | 448,00 |
| • Geuz gurasoentzat formakuntza..... | 300,00 |
| • Kutxa espazioa museoa..... | 250,00 |

Guztira 4.502,35€



ABALTZISKETA

Ekintzen berri eman eta mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Txalburu eskolako guraso elkarteari iaz bezala, 1.500,00 eurotako laguntza ematea.
2. Erabakiaren berri eskatzaileari ematea.

9- TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUAREN ZERGAN, 2015EKO ABENDUAREN 28AN ONARTUTAKO ALDAKETA KONTUTAN HARTU, ETA 2017KO KUOTAN APLIKATZEA ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

J.M.G.I Jaunak adierazi du, trakzio mekanikozko ibilgailuen zergan, hobari berri onartu zela eta berau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman zela 2015eko abenduaren 28an.

Hobari honen xedea, honako hau izan da:

“Trakzio mekaniko ibilgailuen zerga aldatzea.

Beste letra bat erasnten zaio d) letra, trakzio mekaniko ibilgailuen gaineko zergaren uztailaren 5eko 14/1989 Foru arauaren 4.5 artikuluari:

d)100eko 90erainoko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kidea bat bada, familia hori ugaritzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera”

Eskaera honen aurrean, Udalak ondorengo adierazpenak egin ditu:

- Hobari hau aplikatzeak Udalaren aurrekontuan eragin handirik ez duela egingo.
- Familia ugaria direnen kasuetan lagungarri izan daitekeela.
- Proposamenak mahairatu dira, eta %50eko hobariaren alde 3 kide agertu dira eta %80eko hobariaren alde bi kide agertu dira.

Azkenean, ERABAKI DA:



ABALTZISKETA

- 1- 2017ko trakzio mekanikozko ibilgailuen erroldan, familia ugarien titulua dutenei, %50eko hobaria aplikatzea, guztira bost direlarik.

10.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Bat.- Xabala janari dendaren ustiatzaileak, hirigunean seinaleak jarri nahi ditu bere dendaren kokapena adieraziaz.

Udalak, egoki ikusi du eta baimena emango duela baina seinaleak jartzearen ardura eskatzailearena izatea erabaki da.

Bi.- Aldundiak, herritarren partidetzak sustatu eta indartzeko asmoarekin erakunde arteko espazioa sortu du. Berau arautzeko 2017ko urtarrilaren 17ko 1/2017 Foru dekretua onartu du, eta Gipuzkoako udalei, erakunde arteko espaziora atxekitzeko erabakia proposatu dutela.

Atxekitzeko erabaki proposamena honakoa da:

ABALTZISKETAKO UDALAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA:

“ Gipuzkoako Foru Aldundiak *Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua* onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

- a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.
- b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.
- c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.
- d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.
- e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.



ABALTZISKETA

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Gaia aztertuta zera erabakitzen da:

1. Abaltzisketako Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.
2. Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.

a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.

b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.

c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.

d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.

e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.

f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.

g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.

h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.

i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.

Mahaikideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espaziorako atxekimendua onartzea.



ABALTZISKETA

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat eman zuen Alkateak, 21:20 etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak